

BALORZKO PROPOSAMENA

Proiektuak esperientzia bat eskaintzen du, bezero askok ohiko janaria baino zerbait gehiago aurkitzeko duten beharrari erantzuten diona. Sukaldaritzak errepikatzeko joera duen eta eskaintza gero eta homogeneoagoa den testuinguru batean, IPUINKOIARAK gastronomia eta narratiba konbinatzen dituen alternatiba bat proposatzen du bizipen osoagoak eta gogoangarriagoak bilatzen dituztenentzat. Gure ipuinak Historia / Mitologiazkoak izango dira . Proposamenak sormen-aisialdiaren eta gastronomia-aisialdiaren artean aukeratu beharrik ez duten kultura-esperientzien eskaera ebazten du, biak formatu bakarrean integratuz.



Gainera, proiektuak bereizketa eta lotura emozionala ditu ezaugarri. Plater bakoitza historia-zati batekin lotzean, inplikazioa, arreta eta ezustekoak sortzen dituen ingurune bat eskaintzen da. Bezeroarentzat, horrek esperientzia murgiltzaile zaila suposatzen du beste espazio batzuetan aurkitzeko. Oroitzapen ahaztezina izango da, ez bakarrik, beste jatetxe batzuetan bezala, janaria ona delako, baizik eta giroagatik, esperientziagatik eta originaltasunagatik.

Menua hilabete terdiro aldatuko dugu tematikarekin batera baina bi tematikak ez dira aldi berean aldatuko. Behin bezeroa fidelizat Menuan ez da egongo platerrak aukeratzeko aukera, ipuineko historia jarraitu behar dugulako.